

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Estatuak iaz 2012an baino 223 milioi gutxiago gastatu zituen Nafarroan langabeziako prestazioak eta subsidioak ordaintzeko

*Foru Komunitatean, ia 20.000 pertsonak ez dute ez lanik ezta Estatuaren laguntzarik ere*

Asteartea, 2018.eko maiatzak 15

Nafarroako 20.000 langabe inguruk ez dute jasotzen Estatuako babes-sistemak emandako ezein prestazio edo subsidiarik; hau da, langabezia duen % 54,6k. Gobernu zentralak desberdintasun hau orekatzeko egiten duen gastua % 53,5 murriztu da 2012az geroztik, izan ere, urte hartan Estatuako Sistemak bideratutako 435 milioien aldean, 2017ko gastua 202 milioi eurokoa izan da, Eskubide Sozialen Departamentuak landutako [azterlanaren](#) arabera. Datu horiek Errealitate Sozialaren Behatokiko zuzendari nagusi Patxi Tuñónek aurkeztu ditu.

2013ko urtarrilari dagokio Nafarroan prestazio horietan izandako onuradun-kopururik handiena: 34.995 pertsona. 2017ko abenduaren bukaeran, 16.205 langabek jasotzen zuten Estatuako sistemak emandako prestazioen bat, hau da, % 53,7 gutxiagok.

Jaitsiera honek Estatuako gainerako autonomia-erkidegoei ere eragin die, baina neurri txikiagoan. 2017ko abenduko datuak kontuan hartuz, Nafarroan, estaldura-sistemak lan bila zebiltzan pertsonen erdia baino gutxiago barne hartzen zuen: % 45,35, hots, Espainia osoan dagoen % 55,5eko estaldura-portzentajea baino 10 puntu gutxiago.

Langabeei zuzendutako estaldura ekonomikoa gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuta ere, Nafarroa ez dago egoerarik onenean. Urteko batez bestekoetan, Foru Komunitateak % 48,4ko estaldura-tasa du, Asturias (% 46) eta Euskadiren (% 42,5) aurretik. Balear Uharteak (% 88,7) eta Extremadura (% 66,3) dira prestazioa jasotzen duten langabeen kopururik handienak dituztenak.

Horren harira, Tuñónek gogoratu du langabeziako prestaziorik ez jasotzeak kalteberatasun edo bazterketa egoerak sustatu edo finkatu ditzakeela egoera horretan dauden pertsonen artean, eta ondorioz, garrantzitsutzat jo du Nafarroako Gobernuari Errenta Bermatua gisako laguntza eskatzeko egoeran egon daitekeen kolektibo horren zenbaketa egokia egitea.

Pertsona batek enplegua galtzen duenean, prestazio edo subsidioren bat jaso dezake, zenbait baldintza betez gero. Laguntza hauek Estatuako Enplegu Zerbitzu Publikoak kudeatzen ditu, eta hiru motatakoak dira Nafarroan: prestazio kontributiboa; langabeziako subsidioa, zenbait aldaerarekin; eta aparteko bi laguntza: Laneratzeko

Errenta Aktiboa (LAE) eta Enplegua Aktibatze Programak (EAP).

### **Prestazio gutxiago, subsidio gehiago**

Nafarroan, 2017an izandako igoera arinaren gainetik, protagonismoa galduz joan da prestazio kontributiboa eta ehunekoetan gero eta pisu handiagoa hartu dute subsidioek eta aparteko laguntzek.

2017an, prestazioak eta subsidioak honela banatu ziren: % 56,1 prestazio kontributiboak izan ziren; % 36,9 subsidioak, % 6,6 laneratzeko errenta aktiboak eta % 0,3 enplegua aktibatze programak. 2008ko banaketan, % 72 prestazio kontributiboak ziren eta % 26,5 subsidioak.

Kontuan izan behar da subsidioaren hileko zenbatekoa 430 euro ingurukoa dela, eta ondorioz, Nafarroan lanik ez duten pertsonen erdiek ez dute langabeziako estaldurarik. Eta langabeziako estaldura dutenen artean, hamarretik lauk oso zenbateko murrizta jasotzen dute.

Kopuruek frogatuta utzi dute langabeziako babes-sistema publikoaren mugapena, eta egoera honi lotutako kalteberatasun eta pobrezia-arriskuaren igoerak bultzatuta, beharrezkoa da egungo Errenta bermatua gisako orekatze-tresna propioak izatea. Kopuru absolutuetan, 2012-2017 epealdian, Estatua Nafarroako langabeei 435,6 milioi euro ordaintzetik 202,6 milioi euro ordaintzera igaro da. Bestalde, pertsona bakoitzeko egindako langabezia-estalduragatiko gastua (urteko batez bestekoa) 8.647 eurotik 5.439 eurora igaro da, % 37ko jaitsierarekin.

Datu hauen aldean, Errenta Bermatuari zuzendutako aurrekontuaren igoera nabarmendu behar da, izan ere, epealdi berean, Nafarroako aurrekontuan 30,2 milioi euroko zenbatekoa izatetik (lehen zegoen gizarte inklusiorako errenta barne hartuta) egungo Errenta Bermatua ordaintzeko hitz emanda dagoen 98 milioi euroko zenbatekora igaro da. Bestela esanda, langabeziagatiko gastua ia 233 milioi txikiagoa izanik, Errenta Bermatuaren igoera 67,8 milioikoa izan da.

Langabeziako prestazioen erabateko murrizketa nagusi den egungo testuinguruan sortutakoa da [Nafarroak eta beste autonomia-erkidego batzuek egindako proposamena](#), langabeziako prestazioak hobetu daitezela eta autonomia-erkidegoetako gutxieneko errentekin bateragarriak izan daitezela eskatzeko. Nafarroaren kasuan, langabeziako prestazioa Errenta Bermatuarekin bateragarria izango balitz, Foru Komunitateak urteko 7 milioi euro inguruko aurrezkoa izango lukeela kalkulatu da.